

# FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Ezinbestekoa izango zaigu nahiko diru lortzea, alokairua ordaintzeko, materiala eskuratzeko, edo edozein erosketa egiteko; eta horretarako garrantzitsua da enpresak ondo funtzionatzea. Beraz horretarako norberak zer eginkizun duen ondo bereizi behar dugu, bakoitzak abilezia bat du, ondo etorriko zaiguna aurrera ateratzeko. Hala ere guk egin ezin ditugun jarduerak egongo dira, horiek ere ondo espezifikatu beharko ditugu funtsezko elkarteetan.



Gure enpresak furgonetarik ez edukitzeak ez du zentzurik izango, beraz bat behar dugu eta zorte onez ekintzaile batek, Ainhoak, furgoneta bat du, beraz oso ondo etorriko zaigu materialak garraiatzeko.

Giza baliabideak ere garrantzitsuak izango dira proiektua aurrera eramateko. Sormena, ezagutza eta gaitasun komertzialik gabe ez goaz inora. Bost kide gara eta guztion artean hiru ezaugarri horiek betetzen ditugu. Norak eta Saiok gaitasun komertzial horiek dituzte, harremanetarako trebeak dira eta beraz beraiek arduratuko dira bezeroetaz. Naroak aldiz oso ona da matematiketan beraz berak gure enpresaren kontuak eramango ditu. Beste alde batetik sara oso ona da marrazten beraz berak diseinatuko du gure enpresaren makinak.



Amaitzeko, gure enpresak hainbat baliabide fisiko erabiliko ditu. Adibidez, enpresako ordenagailua bakoitzak bere etxetik ekarriko duena (web-a erabiltzeko), eta enpresako mugikorra (beste enpresekin harremanetan jartzeko) eta sistema informatiko hauek eskuratzeko ez dugu arazorik, izan ere, taldekide batek primerazko mugikor bat du erabiltzen ez duena, beraz kostu bat gutxiago.



